

Ataekaria

Arte Eszenikoen Teknikarien Elkartearen Aldizkaria
Revista de la Asociación de Técnicos de las Artes Escénicas

18
07 - 08
/ 06



TEKNIKARI@K

Eta gainera... Araupetzearen aldeko lehen pausua
Y además... Primer paso hacia la regularización



ñaque



ñaque gestión de proyectos
culturales y de artes escénicas



ñaque formación expresiva



www.naque.es

info@naque.es

Pasaje Gutiérrez Ortega, 1

13001 Ciudad Real 926.214.714

www.libreriadeteatro.com

info@libreriadeteatro.com

San Mateo, 30 - Metro Alonso Martínez

28004 Madrid 913.193.653 913.080.018

Ataekaria

Arte Eszeniko en Teknikarien Elkartearen Aldizkaria
Revista de la Asociación de Técnicos de las Artes Escénicas



ATAE

Erredakzioa, banaketa eta publizitatea
Redacción, distribución y publicidad
ATAE

Bulegoa/Oficina
Juan de Gardeazabal, 3. 48004-BILBAO

Helbide postala/Dirección Postal
1194 postakutxa. 48080-BILBAO

Tel: **944.014.248**
615.731.729

E-maila: **info@atae.org**
Web orria: **www.atae.org**

Jendaurreko ordutegia:
Astelehen, asteazken eta ostiraletan
10,00etatik 14,00ak arte.

Horario de atención al público:
Lunes, miércoles y viernes
10,00 a 14,00 horas.

Dohako banaketa.

Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari honetan idazten duten laguntzaileen eritzien ardurarik.

Eskatu gabeko kolaborazioak 1800 karaktereko gehieneko luzera izango dute (tarateak barne). Horrela izan ezean, Ataekariaren erredakzio-taldeak eskubidea izango du testua ebaki edo laburbiltzeko.

Distribución gratuita.

La Asociación no se hace responsable de las opiniones vertidas por sus colaboradores en esta revista.

Las colaboraciones no solicitadas habrán de tener una extensión máxima de 1800 caracteres (espacios incluidos). En caso contrario, la redacción de Ataekaria se reserva el derecho de cortar o resumir el texto.

Recuerda que nuestra oficina está en los locales de Bilbao Eszena:

C/ Juan de Gardeazabal 3
48004 Bilbao
944014248 / 615731729



Batzordetik
Desde la Junta 4

Boloen artean...Batzarra
Entre bolo y bolo...Junta 6

El rincón de Elías 8


Lanbidearen araupetzearen
aldeko lehen pausua
Primer paso hacia
la regularización de la profesión 10

Ezagutu...
Conoce a... 12

AETÓJ
TASP.... 16

Deskontuak
Descuentos 20

Material Bibliografikoa
Material Bibliográfico 22



■ Duela urte batzuk, data zehatza jakitea gutxienekoa da, emakume talde txiki bat sartzen hasi zen antzokietako eta enpresa batzuen langilegoan, nagusiki rock and rollerako soinu eta argiztapeneko enpresak.

Orduko teknikarien harridurarako suertatu egin zen nobedade hori, ohituta bait zeuden muntaiak testosteronari esker aurrera ateratzen, fisikoki oso gogortzat jotzen zirelako muntaietako giza taldeen zuzendaritza eta koordinazio-lanak ere.

Behin hasierako txundidura gaindituta, poliki poliki hasi ziren gauzak aldatzen gure ofizioan. Baina, denboraren poderioz emakumezkoen presentzia gure lan esparruan gero eta egonkorragoa izan arren, desoreka nabaria dago oraindik gizonezkoen eta emakumezkoen artean langileen kopuruari dagokionez. Hala eta guztiz ere, alde hau apurka apurka murriztuz doa, gehien bat gero eta emakumezko gehiago dagoelako ikasle teknikari eskoletan, formakuntza ikastaroetan, eta lan- arloko esperientzia desberdinetan aritzen, ezinbestekoak gure ofizioarekiko lehen hurbilketa modura.

Arte eszenikoen alorrean gero eta emakume gehiago lanean hasteak beste aldaketa bat ekarri egin du ere: buruak askatzea. Buru guztiak askatzea. Eta horrek, nahi eta nahi ez, sexu bien arteko elkar ulertzea erraztu egiten du.

Baina adi egon beharko, aurretik dugun bidea luzea da-eta, eta gure lanbide honetan asko falta dugu oraindik sexuen arteko parekatzea lortu arte, bai alde ekonomikoari dagokionez, baita lanaren aldetik ere.

Lagungarria izango zen, nola ez, emakume teknikarien erreibindikazioak ozenki aldarrikatzea. Horretarako bozgorailu egokia

ATAEKARIA izan daiteke, bertan elkartekideek eta arte eszenikoen arloan dabilzan guztiak idatzitako eritzi-artikuluen bidezko partehartzea beharrezkotzat jotzen dugu elkar hobeto ezagutzeko.

Gu guztion jarduera hobetzeko ahaleginetan oso lagungarria izango da bizitzea egokitu zaigun edozein bereizkeria-egoera, gehiegikeriak eta gutxiespenak salatzea; eta baita oraindik arautu gabe dagoen gure lanbide honetan eman daitekeen edozein ezohiko portaera salatzea ere.

Kontua ez da asuntuaren alde txarra soilik azpimarratzea. Sexu desberdinen teknikarien arteko lan-harremanak, orokorrean, onak izaten direlako, gu banatzeko ahalegin hutsaletan temati aritzen diren diruaren eta enpresen arloko politika zaharkituek erakutsi nahi diguten baino hobeagoak.




Eszenatoki berean batera teknikari emakumezkoak eta gizonezkoak egoteak egoera interesgarri eta dibertigarriak sortu izaten ditu, mesedegarria izan daitekeen lehia laborala ere ematen delarik.



▲ **Hace unos años, la fecha exacta es lo de menos, un reducido grupo de mujeres empezaba a aparecer en las plantillas de algunos teatros y empresas, principalmente de sonido e iluminación de rock and roll.**

Esta novedad, no dejó de sorprender a los técnicos, acostumbrados a tirar de testosterona en unos montajes donde, tanto la coordinación como la dirección de los equipos humanos, se consideraban trabajos muy duros, sobre todo en el aspecto físico.



Superado el primer estupor, la profesión empezó a cambiar lentamente. Pero, aunque el tiempo ha contribuido a estabilizar la presencia de la mujer en nuestro mundillo laboral, todavía existe una notable desproporción en lo que al número de trabajadoras se refiere. Sin embargo, esta diferencia se reduce, paulatinamente, gracias, sobre todo, a la cada vez mayor presencia de futuras técnicas en las escuelas, en los cursos de formación y en experiencias laborales tan diversas como imprescindibles en su rol de primeros acercamientos a la profesión.

La creciente incorporación de la mujer al sector de las artes escénicas ha llevado aparejado otro cambio: la apertura de mentes. De todas las mentes. Y ello, indefectiblemente, propicia el mejor entendimiento entre ambos sexos.

Pero ¡jojo!, que el camino que queda por delante es largo y, ésta, una profesión en la que aún falta mucho para conseguir la equiparación entre los dos sexos, tanto en lo económico como en lo laboral.


Ayudaría, como no, poner un altavoz a las reivindicaciones de las técnicas. Un altavoz como el **ATAEKARIA** donde la participación, a través de los artículos de opinión de los socios y de todos los implicados en el entramado de las artes escénicas, se nos antoja necesaria para conocernos mejor.

La denuncia de cualquier situación de discriminación, abuso o, incluso, menosprecio, que hayamos podido vivir a lo largo de nuestra experiencia profesional; la denuncia de cualquier comportamiento anómalo éste aún sin reglamentar oficio con el que nos ha tocado lidiar, ayudaría en el intento de mejorar la trayectoria de tod@s.

Tampoco se trata de sacar destacar exclusivamente lo más negativo de la cuestión. Porque las relaciones laborales entre técnic@s de distinto sexo, son mucho mejores de lo que nos quieren hacer ver esas políticas rancias y casposas que, desde el poder del dinero y de la empresa, se empeñan en la baldía empresa de desunirnos.

La mera presencia de técnic@s, hombres y mujeres, sobre un mismo escenario, da lugar a interesantes y divertidas situaciones, preñadas de sana rivalidad laboral.

Entre Bolo y Bolo ... JUNTA



Boloen Artean ... BATZARRA

■ Pasa den apirilaren 4an ospatutako bilera orokorraren ostean, Zuzendaritza Batza lanean hasi da elkartekideek agindutako enkarguak, nahiak eta asmoak betetzeko asmoz.

Lan horien lehen ondorioa, hain zuzen, eskuen artean daukazu aldizkaria da, gure lanbidean emakume teknikariek duten oinarritzko paperari **d e d i k a t u t a k o** Ateakaria. Jakin badakigu dagoeneko emakumezkoak bete betean hasi egin direla gure profesioan lanean. Eta lan honetan aritzen garen guztion ardura da lanean sartzeko hori **d u i n t a s u n e z**, berdintasunez eta **l a n k i d e t a s u n e z** **b u r u t z e a**. Emakumezkoak eta, zehazki, emakume teknikariak esistitzen direla mundu osoari gogorarazteko eritzi artikulua gehiagorik idatzi behar ez izatea da gure asmoa.

Asanbladaren ondorioz aipatu behar dugun beste gai bat da Arte Eszenikoen profesionalen Duintasuna eta Araupeketaren aldeko lan-talde indartuak burutzen duen etorkizunerako lana. Aldizkari honekin batera, elkartekideek jaso dute gutunazal itxi bat, barruan eskutitza eta funtsezko galdera errez batzuk dituela, ondorioak ateratzeko zuzenduak. Azken hauek urrian seguruenik ospatuko den Ezohiko Bilera Orokorraren mamia

izango dira. Bilera horretatik lana ematen digun inguruari Elkartearen indarraren bitartez esijituko dizkiogun oinarritzko akordioak ateratzea espero dugu. Era berean, inguru horrek jaso egingo du ATA Eren beste eskutitz bat, aurreko udako kanpainetan zehar bidalitako eskutitz informatiboak baino zorrotzagoa. Aldizkariaren ale honetan bertan gai honetaz informazio gehiago irakurri ahal izango duzue prestatu dizuegun beste artikuluan.

Udarekin batera, ATA Eren bulegoak bere ohiko jendaurreko ordutegia errekuperatuko du (astelehen, asteazken eta ostiralean, 10etatik 14ak arte), eta gure langilearen ardurak handiagotu egingo dira, aurreko urteetan bezala uztailaren lehen astean hasiko diren EHU/UPVren formakuntza ikastaroak koordinatu ahal izateko.

Formakuntza dela eta, datorren udazkenean ATA Ek koordinatuko du Lan Ekintzak enkargatu duen langabetuei zuzendutako Antzerkirako Karakterizazio eta Makillaje ikastaro bat, lan-

merkatuan sartzen laguntzeko asmoarekin antolatuta.

Aipagai dugu ere Elkartek Euskadin Arte Eszenikoen Goi Eskola erreibindikatzen duen plataformarekin batera egindako lanari esker lortu izan dela Eusko Jaurlaritzaren aldetik gaia aztertzeke konpromezua, eta esperokoa da arazo teknikoak behar duten

espazioa emango dien etorkizuneko Eskola martxan izatea 2007/2008 ikasturtean.

Azkenik, azpimarratu nahi dugu gure Kataluniako lankideak hasi direla dagoeneko katalanerazko ATA Eren triptiko informatiboak banatzen.

Amaitzeko, eta laneko kontuak alde batera utzita, esan behar dugu pasa den ekainaren 6an afari polita ospatu genuela Bizkaiko 18 teknikariek, Bilera Orokorraren agindua betez, eta afalostea giro ederrean igaro genuela, hainbat berri eta barre.

Tras la asamblea general de ATAE, celebrada el pasado 4 de Abril, la Junta Directiva se ha puesto manos a la obra para llevar a buen fin los encargos, anhelos y deseos que les encomendaron los socios.



La primera consecuencia la tienes en las manos, un Ataekaria dedicado al fundamental papel de las técnicas en nuestra profesión. Que la incorporación de la mujer a nuestro oficio es un hecho, lo sabemos todos. Que esa incorporación se lleve a cabo con dignidad, con igualdad y compañerismo, es tarea de todos y cada uno de los que nos dedicamos a esto. Ojalá no se tengan que escribir más editoriales para recordarle al mundo que la mujer y, más concretamente, la mujer técnica, también existe.

Otra cuestión derivada de la asamblea es el trabajo para el futuro de la profesión que se ha empeñado en conseguir el reforzado equipo de trabajo para la Regularización y Dignificación de los profesionales de las Artes Escénicas. Conjuntamente con esta revista, los socios han recibido un sobre sellado con una carta y unas sencillas preguntas claves, orientadas a extraer unas conclusiones. Éstas tendrán su punto álgido en la Asamblea General Extraordinaria que se celebrará, probablemente, en Octubre. De ella esperamos que surjan unos acuerdos mínimos que, desde la fuerza de la Asociación, se exigirán al entorno que nos da trabajo. Entorno que recibirá, igualmente, una nueva misiva de **ATAE**, más incisiva y más exigente que las informativas enviadas en las campañas de verano anteriores. En éste mismo número podeis ampliar este aspecto con un artículo elaborado al efecto.

Con la llegada del verano, la oficina de **ATAE** recupera su habitual horario de atención al público (los lunes, miércoles y viernes, de 10 a 14h.), aunque el trabajo de nuestra trabajadora se intensificará para coordinar los cursos de

formación de la **EHU/UPV** que, como en anteriores ediciones, dan inicio en la primera semana de julio.

En el tema de la formación, **ATAE** coordinará el próximo Otoño, encargado por Lan Ekitntza un curso de Caracterización y Maquillaje Teatral dirigido a parad@s, con el punto de mira puesto en el la inserción en el mercado laboral.

Además, el trabajo realizado por la Asociación junto a la plataforma que reivindica una Escuela Superior de Artes Escénicas en Euskadi, donde las cuestiones técnicas tengan el espacio que se merecen, ha conseguido del Gobierno Vasco el compromiso de iniciar un estudio del tema, orientado a que la futura escuela sea una realidad para el curso 2007/2008.

Por último, queremos hacer hincapié en el hecho de que nuestros compañeros catalanes ya distribuyen los trípticos informativos de **ATAE**, en el idioma de su comunidad.

Y, como no todo es trabajar, el pasado día 6 de Junio 18 técnicos de Bizkaia cenamos juntos en lo que fue una velada plena de noticias, risas y buen ambiente, tal y como se demandó, igualmente, en la Asamblea General.



El Rincón de ELÍAS

TEKNIKARI@K

■ Gure lanbidean egunez egun suertatzen diren hainbat aldaketa eta aurrerapenen artean, errealitate benetan ukaezina dugu emakumezkoak, gero eta emakume teknikari gehiago Arte Eszenikoen sarean lanean hasten direla.

Poz handiz ohartu egin naiz Getxoko Antzerki Eskolatik irten diren argiztatzailen azken promozioko ikasleen erdia neskak direla, eta areago, neska horiek ATAEn sartzeko eskaera bete egin dute (oso argi dutelako norantza nahi duten lan-munduan emango dituzten aurreneko pausuk abiatzea) eta EHU/UPVren udako ikastaroetan matrikulatu egiten dira (formakuntzari esker profesional hobeak izango direla badakitelako).

Azken 16 urte hauetan zehar gutariko edozein bezain gaituak, eta batzutan hobeak ere, diren emakume teknikariek lan egiteko aukera izan dut. Benetan uste dut emakumezkoak gure lanbidean sartzek profesioak duen alde ona aberastu egiten duela, gauzak egiteko era ezberdinak eta bestelako pentsamoldeak ezagutzeko bidea errazten digun heinean.

Nire lagun handi baten esanetan, gizon teknikariok oso gustokoa dugu “paparraren jokoa”; paparra

harrotu egiten dugu ea nork arinago montatu ikuskizuna; ea nork kaxarik astunena besteen laguntza barik deskargatu; ea nork egin astakeriarik ederrena; ea nor den... astokilorik astopitoena! Bestalde, honekin batera profesionaltasun handia ematen dela esan egin behar da, eta horri esker ikuskizunak gero eta zoragarriagoak dira, gero eta berriagoak eta teknikaren aldetik eta estetikoki gero eta biribilagoak.

Gaurkoan gai honetaz aritzea eta ATAek Ataekariaren zatirik handiena emakume teknikarien lanari dedikatzea, oraindik lan munduan eta zehazki teknikarien arloan emakumezkoen integrazio osoa lortzeko bidean ibili beharko garela, nahiz eta gero eta bide laburragoa izan. Baina, era berean, ATAek honekin gure elkartearen eta gure lanbidearen errealitatea ezagutarazteko guztioi proposatzen digun hondar-ale garrantzitsua da ere. Gaur egun, ATA Eren elkartekideen artean %16a emakumezkoak dira, eta horrek esan nahi du asko direla, jatorriz gizonezkoen eremu batean sartuta; baina, era berean, oso gutxi direla esan behar dugu, eta oraindik ere lagundu egin behar ditugu gure lanbidean aritu nahi dutenei bidea erraztuz, horrela denok irabazle aterako bait gara eguneroko lanaz, eztabaidez eta ideien alderatzeaz aberastuz.

Bizi garen gizarteak, ez dakit zer nolako antzineko argudioetan oinarrituta, desberdinkeriak temati sortzen ditu. Eta, behin eta berriro errepikatuko dut, den@k elkarrekin demostratuko diogu gizarteari Arte Eszenikoen Teknikarien mundua diferentea dela, hain zuzen, bertan ematen den berdintasunagatik. Eta hori lortzeko bide bakarra dugu, hau da, errespetuaren bidea eta ondo egindako lanaren aintzatespenarena, duen sexua duela.

Hala izan bedi.



▲ Dentro de los múltiples cambios y avances que, día a día, acaecen en nuestra profesión, la incorporación cada vez más numerosa de las mujeres, de las técnic@s, al entramado de las Artes Escénicas, es una realidad claramente incuestionable.

Observo con indisimulada alegría cómo casi la mitad de l@s alumn@s de la última promoción de Iluminador@s salidos de la Escuela de Teatro de Getxo son chicas que solicitan ingresar en ATAE (porque tienen muy claro por dónde quieren dirigir sus pasos profesionales,) y que se matriculan en los cursos de verano de la EHU/UPV (porque saben que la formación les hará mejores profesionales).

A lo largo de éstos últimos 16 años he tenido la oportunidad de trabajar con técnicas, tanto o mejor cualificadas que cualquiera.

Sinceramente, creo que la incorporación de compañeras a esta profesión no puede más que enriquecer lo que de bueno tiene nuestro trabajo, en el sentido de facilitarnos el conocimiento de otras mentalidades y otras formas de hacer las cosas.


Un gran amigo mío dice que nos gusta mucho jugar a “pechitos”; a sacar tórax para ver quiénte monta el evento más rápido y con más genitales; a ver quiénte descarga la caja más pesada solo; a ver quiénte hace la burrada más grande; a ver quiénte es más... gilipollas. Esto convive, por otra parte,

con una gran profesionalidad que lleva a que los espectáculos sean cada vez más impresionantes, novedosos y estética y técnicamente perfectos.

El que hoy estemos hablando de este tema, que ATAE dedique la parte del león de un Ataekaria al trabajo de las técnicas, es claro síntoma de que todavía queda un camino, cada vez más corto, que recorrer hasta la total integración de la mujer en el mundo laboral en general y en el técnico en particular. Pero también es un importante granito de arena que ATAE nos propone a tod@s para dar a conocer la realidad de nuestra profesión y de nuestra asociación. Decir que el 16% de l@s soci@s de ATAE son mujeres, es tanto como decir que son muchas en un mundo tradicionalmente de hombres y, al mismo tiempo, es tanto como decir que son muy pocas y que tenemos que seguir apoyando a nuestras compañeras y favoreciendo su incorporación a una profesión que sólo puede salir beneficiada al enriquecerse con la confrontación de ideas, el debate y el trabajo diario.

Sólo desde el respeto y desde el reconocimiento al trabajo bien hecho, venga de donde venga, y tenga el sexo que tenga, podremos tod@s junt@s, y no me cansaré de repetirlo, dar un ejemplo a esta sociedad que, con base en no sé qué decimonónicos argumentos, se empeña en crear desigualdades, demostrándole que el mundo de la Técnica en las Artes Escénicas es diferente, precisamente, por su igualdad.

Así sea.



DUINTASUNA DIGNIFICACIÓN

LANBIDEAREN ARAUPETZEAREN ALDEKO LEHEN PAUSUA

Pasa den apirilaren 4ko Ohiko Bileran Nagusian hartu ziren erabakirik garrantzitsuenetako bat izan zen ATAEren sorreran funtsezkotzat jo genuen helburuaren alde borrokatzeko lan-talde bat martxan jartzea: hau da, gure lanbidea araupetzea.

Lan taldea bileran bertan eratu egin zen eta ondoko partaide hauek osatzen dute: *Nafarroatik, Santos Garúa Lautre; Gipuzkoatik, Andoni Garaizar eta Ángel Agüero; Iñaki Isasi, Arabatik eta Iam Agorriá eta Elías Otaola, Bizkaitik.*

Ataekaria honekin batera, ATAEren bazkide guztxi bidali egin zaie gutun bat lan-talde honen nondik-norakoak eta baita lortu nahi diren helburuak ere zehazki azaltzen dituen. Zeren eta, hain zuzen ere, azken puntu honetan datza gakoa: zeintzuk diren markatuta dagoen helmugara ailegatzeko eman beharreko pausuak.

Inkesta bat asmatu dugu gure lanbidea norantza abiatzea nahi dugun argitzeko. Bertan Elkarteko partaide guztxi galdetu egiten diegu zeintzuk diren ezinbestekotzat jotzen duten minimo horiek, teknikarion lanbideak beharrezkoak diren laneko duintasuneko baldintzak bete ditzan.

Jarraitu beharreko norabidea aterako dugu jasotzen ditugun erantzun GUZTIEN artean. Hau da, lan-taldeak bere hurrengo pausuak zuzendu egingo ditu elkartekideok, teknikariok, markatuko diogun bidetik. Horregatik dugu hain garrantzitsua ahalik eta erantzun gehien jasotzea.

Bizi garen hau momentu historikoa da gure lanbidearentzako. Eskatzen dizugun parte-hartze txikiak eragin handia izango du azken balantzea aldekoa izatea nahi baldin eta ba dugu. Galdereei erantzun baino ez duzu egin behar.

ATAEk bidali egin du erantzunerako gutunazala aurretik tinbratua, eta horrek ahalegin ekonomiko (papertegia, Posta, denbora...) suposatzen du. Horren ordainez eskatzen dizugu inkesta betetzea eta hurbilen duzun postontzian sartzea, besterik ez.

Ekintza simple horrek baldintzatu egingo du, neurri handi batean behintzat, etengabe errebindikatzen dugun araututako etorkizuna.

Lan-taldeak abuztuan zehar aztertuko ditu jasotako erantzunak eta, irailaren lehen hamabostaldian, elkartekide guztxi bidaliko zaien dokumentuaren zirriborroa idatzi egingo du, eta web orrian argitaratu ere, horrela eztabaida-foroa sor dadin.

Aipatutako dokumentuarekin batera bidaliko da, baita ere, urriaren azken egunetarako (gure Estatutuek markatzen dituzten legezko epeak betez) eratuko den Ezohiko Bilerarako deia.

Ezohiko Bileran hori erabakigarria izango da, bertan emango den eztabaidetatik aterako bait dira Arte Eszenikoen alorrean inplikaturik dauden guztxi bidaliko diegun azken dokumentua borobilduko dituzten zuzenketak.

Aipatutako minimoen akordio hori jasoko dute bai programatzaileek, bai enpresek, baita gure kontratazioekin zerikusia duten giza-ajente guztxi ere. Eta haiekin adostu, negoziatu eta, geroago, begiratu ere egin beharreko hitzarmena izango da.

Beharrezkoa dugu sortzen ari garenak duen garrantziaz jabetzea, gure lanbiderako izan dezakeen eraginaz ohartzea, eta biziki aldarrikatzen dugun araupetzea lortzea gure esku baino ez dagoela konturatzeko ere ezinbestekoa dugu.

ATAE eta gure lanbidea guk nahi dugun bezalakoak izango dira. Eta horretarako, zure partehartzea ezinbestekoa dugu. Oraingoan, inkesta betez eta gutunontzian sartuz, Aurreneko pausua baino ez da.



PRIMER PASO HACIA LA REGULARIZACIÓN DE LA PROFESIÓN

Una de las decisiones más trascendentales entre las tomadas por la Asamblea General Ordinaria del pasado 4 de abril, es la puesta en marcha de un equipo de trabajo, dedicado a luchar por el que se plantea como objetivo presente en la fundación de ATAE: la Regularización de nuestra profesión.

Constituido en la propia reunión, está formado por los siguientes miembros: *Santos García Lautre, de Navarra; Andoni Garaizar y Ángel Agüero, de Guipúzcoa; Iñaki Isasi, de Álava e Iam Agorria y Elías Otaola, de Vizcaya.*

Junto con este Ataekaria, se ha remitido a tod@s l@s soci@s de ATAE una carta en la que se explica pormenorizadamente qué es lo que el mencionado equipo está haciendo, así como los objetivos que se esperan conseguir. La clave se encuentra precisamente en este último punto, en los pasos que es preciso dar para llegar a la meta marcada.

Para clarificar el sentido en el que se quiere que la profesión avance, se ha elaborado una encuesta. En ella se pregunta a todos los miembros de la Asociación sobre los mínimos que se considera imprescindible reivindicar para conseguir que la de técnic@ sea una profesión que cumpla las condiciones necesarias de dignidad en el trabajo.

De **TODAS** las respuestas obtenidas, se extraerán las directrices a seguir. Es decir, que el equipo de trabajo encaminará sus pasos hacia donde l@s soci@s, l@s técnic@s, le digan que tiene que



dirigirse. Por eso es de la mayor importancia sumar el más elevado número de respuestas posible.

Nos encontramos en un momento histórico para la profesión. Que el balance final resulte positivo depende, en gran medida, de la pequeña participación que se pide. Tan pequeña como dar contestación al cuestionario.

ATAE ha remitido el sobre de respuesta prefranqueado y, eso, supone un esfuerzo económico cuantificable en gastos de papelería, de Correos y de tiempo. A cambio, tan sólo se solicita que se cumplimente la encuesta y se eche al buzón más próximo. Pero de un gesto tan exiguo, depende, en buena medida, el futuro regularizado por el que tanto se clama.

El equipo de trabajo analizará las respuestas durante el mes de agosto y, en la primera quincena de septiembre, elaborará el borrador de un documento que se remitirá a todos los socios y que, además, se colgará en la página web, para que sirva de foro de discusión y debate.

El citado documento, irá acompañado por la convocatoria de Asamblea Extraordinaria que, para cumplir los plazos legales que exigen nuestros Estatutos, podría fecharse hacia finales de Octubre.

Esta Asamblea Extraordinaria se antoja crucial, puesto que del debate que en ella se produzca, saldrán las enmiendas que redondeen el documento definitivo que haremos llegar a todas l@s implicad@s en las Artes Escénicas.

Este acuerdo de mínimos lo recibirán, tanto programadores, como empresas, como todo agente social que esté comprometido de una u otra manera en nuestras contrataciones. Y será un tratado que habrá que pactar y negociar con ellos y, posteriormente, vigilar.

Es preciso tomar conciencia de la importancia de lo que se está gestando, de la trascendencia que puede tener para la profesión y de que dependemos única y exclusivamente de nosotr@s mism@s para conseguir la ansiada regularización.

ATAE y la profesión serán lo que nosotr@s queramos que sea. Y para ello, ahora, es preciso colaborar. En esta ocasión, rellenando una encuesta y enviándola al correo. No es más que el primer paso.



EZAGUTU...

CONOCE A ...



187

Inmaculada Lana

Aretoko teknikaria
Técnic@ de sala

■ ATA Eren elkartekide nafarren artean, Inmaculada dugu berriena.

Badira zazpi urte Aranguren Aranaren Kultur Etxearen kudeaketa eta zerbitzu teknikoaren ardura bere gain hartu zituela eta, harrez geroztik, apurka apurka argiztapen eta soinu alorretan espezializatuz joan da.

2004-2005 urteetan zehar soinu teknikari espezializatua izateko ikasketak burutu egin zituen eta, berak aitortzen duenez, orduantxe konturatu egin zen gure lanbide honetan oraindik gauza asko ikasteko dugula.


Lan arloan betetzeko dituen asmoen artean, honako hau aipatu egin digu: etengabe ikasten jarraitu, bai Mutilvako kultur etxetik pasako diren lankide guztien laguntzarekin, baita Elkarreak eskeiniko dizkion formaziorako aukerei esker ere.

▲ Inmaculada es la de más reciente incorporación entre las socias navarras de ATAE.

Hace ya siete años que asumió la responsabilidad del servicio técnico y la gestión de la casa de cultura del Valle de Aranguren y, desde entonces, ha realizado una paulatina especialización en luz y sonido.

En 2004-2005 cursó estudios de técnico especialista de sonido y, según afirma, en ellos se dio cuenta de lo mucho que le queda por aprender en esta profesión.

Entre sus deseos laborales, asegura que está el de continuar su permanente aprendizaje gracias a todos los compañeros que pasan por la casa de cultura de Mutilva y a las oportunidades formativas que le brinde la Asociación.



121

Arantxa Incera

Areto burua
Jefa de sala

■ 1981ean hasi zen lanean Arte Eszenikoen alorrean Teatro Tarima taldeko aktorea moduan eta, 1984tik aurrera, antzetze lanak utzi egin zituen alde teknikoaren arloko ardurak soilik bere gain hartzeko, beti ere antzerki talde berean, hainbat urtetan zehar.

1993 eta 1995 bitartean Basauriko Social Antzokian ibili zen argiztapen eta soinu laguntzaile lanetan. Garai berean, gira eta bolo ugarietan hartu zuen parte, bai Estatuan, baita atzerrian ere.

Duela hamar urte egin zen Barakaldo Antzokiko langile eta, gaur egun, bertako Teknikari eta Areto Burua da.

▲ Se inició en las Artes Escénicas, en 1981, como actriz de la compañía Teatro Tarima y, a partir de 1984, abandonó la interpretación para dedicarse exclusivamente al área técnica del mismo grupo, con el que permaneció durante varios años desarrollando esas funciones.

Entre 1993 y 1995 fue asistente de iluminación y sonido en el Teatro Social de Basauri. Al mismo tiempo, completa un amplio currículo de giras y bolos, tanto por el Estado, como más allá de nuestras fronteras.

En la actualidad, es Jefa Técnica y de sala del Teatro Barakaldo, a cuya plantilla se incorporó hace ya diez años.



EZAGUTU...

CONOCE A ...



150

María Berzosa
Argiztapen teknikaria
Técnic@ de iluminación

■ 24 urte baino ez zituenean (duela lau urte) sartu egin zen arte eszenikoen alorrean eta, harrez geroztik, argiztapen teknikari moduan egiten du lan. Lanean egunero planteatzen zaizkion erronketatik duen ikasteko grina dugu berarengan ezaugarririk aipagarriena. “Asko falta dut oraindik ikasteko. Hori da gustatzen zaidana: mundu oso bat deskubritzeko dudala”, esaten digu.

Orain arte, zazpi antzezlanekin ibili izan da jiran, horietatik bi berak diseinatuta.

Gaur egun, Donostiako antzerki- talde birekin ere ibiltzen da lanean.

▲ Con tan sólo 24 años de edad, hace ya cuatro que se introdujo en el campo de las artes escénicas y, desde entonces, desempeña sus funciones como técnic@ de iluminación. Lo que más destaca en ella es su afán por aprender algo más de los retos que, cotidianamente, le plantea su trabajo. “Aún me queda mucho. Eso es lo que me gusta: saber que tengo todo un mundo por descubrir”, afirma con total seguridad.

Hasta el momento, ha girado siete obras de teatro, de las cuales dos llevan la firma de su diseño personal.

